

Mondragon Unibertsitatea saskibaloi taldearen aurkezpena

2007/10/19

MONDRAGON UNIBERTSITATEA elkarteak 07-08 denboraldi hasiberriko aurkezpen ekitaldia egin zuen bere lokalean. Babesle nagusienak, prentsa, udaletxeko kultura eta kirol zinegotzia eta elkarteko jendea izan ziren bertan. Aurtengo berrikuntza nabarienak aurkeztu zituen zuzendaritzaren ordezkariak eta datozen 3 urteetan Mondragon unibertsitatea izenez ezagutuko den saskibaloi taldearen ekipazio berria aurkeztu zen.

10 talde izango dira lehian, 6 federatu, 3 infantil eta alebin talde bat, denak ere gizonezkoak. Iñaki Merino entrenatzaile gasteiztarra izango da 1go mailako taldearen entrenatzaile eta Txus Brizuela Arrasateko talde bat entrenatzera bueltatu da. Javier Zurbanok eramango du dabagoieneko jokalariez osatutako kadete taldea, Bergara eta Oñatiko saskibaloi elkarteekin adostua.

10 talde hauekin, elkarteak helburutzat duen piramidea eraikitzen ari da, saskibaloian jokatu nahi duen orori lekua bermatuz eta aldi berean, lehen talde lehiakor bat izatea lagunduko diona.

